

Identitate kulturala eta boterea

Paulo Iztueta Armendariz
EHUko irakaslea

Identitate sozialaren eta boterearen arteko harremanak aztertzeraz dator saio hau, betiere gogoetaren muintzat gaur egungo euskal arazoaren kasu espezifiko hartuta. Gizakiaren gizarteratsetik abiatuta planteatzen da identitate soziala, eta horren lorpena etengabeko prozesu gisa ulertzen da nola maila indibidualean hala kolektiboan. Era berean, botereak identitate nazionalarekin duen zuzeneko harremana bi mailatan gertatzen dela baieztatzen da, ez bakarrik subjektuen arteko elkarrekintzen mailan, baita norberarengandik at dauden egiturazko harreman-sare objektiboen mailan ere, eta bereziki azken horretan, gure azturak hor baitoaz mamitzen aldioro. Azkenean, azpimarratzen da pedagogiak praktika askatzailearekin eta etikarekin duen zerikusia, pentsatuz balio etikoetan oinarritutako heziketa dela gizarte gizatiarrago eta zuzenagoa eraikiz joateko berme nagusia.

This paper examines the relationship between social identity and power in the specific context of the current Basque problem. Social identity arises in the dimension of human sociability, and its development is taken to be an unlimited process both individually and socially. It is therefore asserted that the relationship between power and national identity is played out on two levels - not only in subjective interactions but also through objective structures, especially the latter in that it is through these that our customs are primarily materialised. Lastly, the paper underscores the relationship between teaching and liberating practice and ethics, in the belief that it is precisely an education based on ethical values that is the cornerstone for the construction of a more just and humane society.

Euskal pilota. Larrua harriaren kontra dokumentala dela eta, Julio Medem egi-leari polifonia bat egin nahi izan duela entzun nion lehengo gau batean telebistan. Ehundik gora ahots jarri ditu martxan, denak Euskal Herriaz beren aburuak emanaz, baina bakoitza beretik arituz, bere nortasunak agintzen dion bezala. Ez dut oraindik ikusi. Baina uste izatekoa da, punta batetik besterako hainbeste lekuko euskal arazoaz hizketan jarri eta gero, orkrestazio horrek eman dezakeen Euskal Herriari buruzko irudia ezin izan daitekeela anitza baizik, eta aniztasunaren esparru konplexuan euskal nortasunaz, dela indibidualaz zein kolektiboaz, galde-za hastea, hemen hastera goazen bezala, nago ez ote den lastategian orratza bilatzen jardutea bezain alferra izango. Besterik ez bada, pantailatik urrun, solase-rako balio dezala ekinaldi honek. Nire hurbilketa hau Hezkuntzaren Soziologiatik egingo dut, diziplina hau baita ondoen ezagutzen dudana.

Prozedurari dagokionez, lehenik azalduko da kultura-nortasuna, orokorrean, nola lortzen den gizarteratzearen ondorio gisa, kulturaren bidez lortzen dena, nola gizarteratzea prozesu bat den, maila indibidualean jaiotzetik heriotzara zabaltzen dena, maila kolektiboan, berriz, historiaurrean hasi, protohistoriak pasa eta historian zehar luzatuz doana; bigarrenik, nolakoa den herri batek, gure kasuan sustrai etnikoetan oinarritutako komunitate nazional batek —eta horren barruan bertako partaideek— lortzen duen, edo zuzenago esanda, lortuz doan, bere gizarte-nortasuna, eta, azkenik, nortasun nazionalaren eraikuntzan zer-nolako eragina duen botereak.

1. Gizarteratzearen bidez eta horren ondorioz lortzen du gizakiak bere identitate soziala, segun eta zein testuingurutan erabiltzen den, kulturala, etnikoa, nazionala, indibiduala zein kolektiboa ere deitzen zaiona. Modu batera edo bestera adierazi, azken batean, zentzu zabalean hitz eginda, kulturaren bidez gizarteratzen da gizakia, gizakia gizaki izaten hasten da. Hori du muga giza espezieak beste animaliekin.

Kultura mugatzen lehena Tylor antropologoa (1871) izan zen, eta horrek zazpi elementu osagarri aipatzen zituen bere garaian: ezagutzak, sinesteak, arteak, legeak, moralak, ohiturak, eta gizakiak, gizarteko partaide den aldetik lortutako trebeziak eta azturak. Geroztik, noski, kulturaz ehundaka definizio eman izan dira. Kröeber eta Kluckhohn iparramerikar antropologoen, 250 definizio-mota jaso eta sailkatu eta gero, kulturaren elementu bereizgarritzat giza taldeen portaerak, sinboloen bidez lortutakoak, eta gizakiak egindako objektuak aipatzen dituzte. Gurean, J. M. Barandiaranek (1977) aipaturiko elementu horiez gain, edo barruan, hizkuntzarena dakar, herri-nortasuna gehien zertzen duen ezaugarri gisa. Koldo Mitxelenaren ustez (1972, 125), orobat, gizarte-bizitzako alderdi guztiak sartzen dira kulturaren, hizkuntzarekin, artearekin eta zientziekin batera, baita lan-ohiturak, senitarteko eta lagunarteko harremanak ere. Beraz, kultura esatean, elementu bat baino gehiago sartzen da hor, besteak beste, nagusiak aipatzearen, portaerak, arauak, balioak, sinesteak, ideiak, ohiturak, azturak eta hizkuntza. Identitate soziala zertzen duten elementu etniko oinarritzat, bost hauek aipatu ohi dira: 1) jatorri berekoak izatea, 2) antzeko kultura izatea, 3) arraza berekoa izatea, 4) hizkuntza bera izatea, eta 5) erlijio bera izatea (Nielson, 1989: 203). Nortasun kulturalaz —gure kasuan nazionalaz edo etnikoaz— ari garenean, bada, badakigu zertaz ari garen. Esan bezala, gizarteratzearen joanean goaz egituratzen geure nortasun hori noiz-nongoetan zehar.

1.1. Gizarteratzea, hain zuzen, *prozesu* bat da, eta, horren harian, gizarteko partaide berriak, elkarrekin bizitzeko oinarrizkoak dituzten beren kultura-tresnak —hizkuntza, sinesteak, azturak, arauak, jateko eta janzteko erak, bizi-erritmoak, etab.— erabiltzen ikasiz doazen heinean, gizartean txertatzen joaten dira. Eta, gizarteratzearekin batera, gizabanakoa komunitate jakin bateko partaidea dela eta besteek ere halakotzat hartzen dutela jabetzen da. Identitatearen edo nortasunaren beste aldean alteritatea edo bestetasuna dago edo, Psikologia Sozialean egin ohi den bereizketaren arabera, “gu” eta “besteak” desberdintzen dira. Beraz, identitate kolektiboaz mintzatzen garenean, komunitate jakin bati buruz ari gara, komunitate horretako partaideok batera ditugun sinboloek eta balioez.

Gizarteratzea prozesu bat dela esan dugu, gizabanakoa gizarteratuz, hau da, kulturalizatuz gero bakarrik joango baita lortzen, poliki-poliki joan ere, bere izaera soziala, jaio eta bizi den gizarteko kultura bereganatzen. Gizakia ez da sortzen gizarteko partaide; sortzetik dakarren bakarra gizartean parte hartzeko bultzada bat besterik ez da, ez gehiago (Berger eta Luckman, 1986: 164). Horregatik, bere inguruko gizartean nagusitzen diren arauak, portaerak eta balioak barneratuz doan neurrian bakarrik joango da gizarteratzen. Arauak barneratzea, bada, oinarri-oinarrizko baldintza da, ezinbestekoa, lehenik, beste bere antzekoen ekintzak ulertzeko eta, bigarrenik, munduaren egiazko errealitatea, esanahiez hornitua dagoena eta soziala dena, atzitu ahal izateko.

1.2. Gizarteratzearen ibilaldia, prozesu gisa ulertuta, bi aro nagusitan banatzen da eta aro horietako bakoitzak bere egileak ditu.

Lehen gizarteratzea haurtzaroari dagokiona da eta familian gauzatzen da, haurrak hor jasotzen baititu gizartean funtzionatzeko oinarrizko arauak, lehenak, hala nola bizi-erritmoak (jana, loa eta), mintzaira eta oinarrizko sinesteak. Aro honetan, esan bezala, familia da gizarteratzeko lehen egilea, bertan bideratzen baitira gizarte-arauak barneratzeko lehen prozesuak. Baina familiaren barruan aldaketa sakonak gertatzen ari dira gaur egun, beste arrazoi batzuen artean, seme-alaben kopurua asko murriztu delako eta emakumea lan-munduan sartuz etorri delako. Berrikitan ezarria da 0-3 urte bitartekoentzako eskola. Familiak ez du inola ere betetzen lehen zuen zeregina kultura- eta hizkuntza-ondarearen transmisioan.

Bigarren gizarteratzean, gizabanakoak, oinarrizko arauak barneratu eta gero, trebezia berriak lortzen ditu gizarteko harremanetan. Horrela, irakurtzen, idazten, kontuak egiten, lagunekin jostatzen, musika-tresnak jotzen, etab. ikasten du. Bigarren aro honetan, egileak bat baino gehiago dira. Lehenik, *eskola* bera, Durkheim-ek esaten duen bezala, hezkuntza formalean hezten baitira belaunaldi berriak aro modernoaz geroztik, bederen. Hor eratzen da ikasleriaren pentsamendua ageriko eta ezkutuko *curriculum*-aren bidez. Bigarrenik, *berdinen arteko taldea* dago, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dena, talde horiek aski gazterik hasten baitira talde gisa funtzionatzen, eskolatik eta auzotik kanpo, astegunetan bezala asteburuetan. Gaztetxoak lagunartean barneratzen ari diren portaerak zein arauak zein balioak —edo balio-ebak— oso kontuan hartzekoak dira, beren izaera, adin horretan, oso moldaeraza baita, argizaria bezain erraz urtzen dena liderraren esanera. Eskola familiar gero eta leku gehiago hartzen ari zaion bezala, lagunarteak gero eta sarrera gehiago du gizarteratzean —eta zenbait kasutan erabakigarria—.

Azkenik, *komunikabideak* dauzkagu, eta hemen, batez ere nabarmentzekoa, *telebista* da. Pantailaren aurrean jarrera pasiboa izatea aski denez, jendearengana erraz iristen da, eta, horregatik, iritzi publikoa sortu, aldatu eta eraldatzeko sekulako gaitasuna du. Nazio-arazoak oso bizirik dauden herrietan, gurea bezalakoetan, estatu-nazioek beren menpeko nazioen askatasun-eskabideak ito, neutralizatu eta deslegitimatzeko erabil ditzaketen teknika-mota desberdinen artean, komunikabideak daude. E. A. Tiryakian-ek¹ dioen bezala, estatu-nazioek bere bortxaren erabilera mugimendu nazionalista batzuen bortxa “terrorismoz” salatuz estaltzen dute. Egia esan, bortxaren erabilerari dagokionez, legez monopolizaturik daukaten beste zenbait segurtasun-indar erakundeturen jokabidea ere antzekoa da. Hori geure begiz egiaztatzeko, ez daukagu urrutira joan beharrik.

Azken batean, hezkuntza formalean adina edo, agian gehiago, gizarteratzen dira partaide berriak hezkuntza ez-formalean. Elizak oraindik ere bere eragina baduen arren, batez ere irakaskuntzaren esparruan, gazteriaren hezitzaile nagusi izateari aspalditxo utzi zion. Gaurko kultura-erreferente gehienak aski sekulartuta daude eta egunkarietako zutabeen eta iritzi-orrien bidez gizarteratzen dira gaur egun pedagogo berrien hari gidariak.

Gizarte-egile horiek dira, zeinek indartsuago zeinek ez hainbeste, herritarren identitatea eratu eta egituratzen dutenak eta, orobat, jarrera kolektiboak antolatzen dituztenak. Esan bezala, euskal gizarte plural eta globalizatu honetan, gizarte-egile horiek dira herritarren norabidea gehienbat markatzen dutenak, belaunaldi berriak hezten ari direnak. Galdetu beharko da gizarte-hezitzaile horiek zeinen eskuetan dauden eta zein pedagogia-estrategia daramaten, berdintzailea, parte-hartzailea, integratzailea, askatzailea, espiritu kritiko eta autonomoen sortzailea, komunalista, ala, guztiz alderantziz, utilitarista, kontsumitzailea, indibidualista, besterendua, arribista, printzipiorik gabekoa. Honekin esan nahi dudana da, gizarteratzearen nolakoa botere-kontua dela, eta boterea dutenek beren interesen arabera jokatzen dutela identitate indibidualen zein kolektiboen eraketan.

Goazen aurrera. Gizarteratzea prozesu bat dela esanez gatoz. Normalean, gehienen ustez, gizarteratze-prozesua antzekoa izaten da aro desberdinetan zehar, hala nola haurtzaroan, gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan. Baina gertatzen da batzuetan hala ez izatea. Kasurik aipatuena, emigratuena izaten da, horiek beren herria utzi eta beste batera joatean, bergizarteratu beharrean izaten baitira. Gizarte-sektore horien inguruan sortu da berrikitan interkulturalismoaren aldeko diskurtsoa, dioena komunitate multikultural eta plurietnikoetan zaindu beharrekoak direla talde bakoitzaren kultura-berezitasunak, eskubide-berdintasunaren eredura. Edo, zeinaren arabera, orain arte nagusitu izan den horienganako jokabide asimilazionistari gain hartzeko —hala esaten da—, inmigratuentzako *curriculum* bereziak prestatzeari ekin diote inmigrazio-poltsa handiak dituzten edo izan duten estatu-nazioetan, Estatu Batuetan bezala Mendebaldeko Europan. Baina, praktikan, lehengotik hona ez da asko aldatu egoera. Izan ere, orain integrazioa deitzen

1. «El control de los medios de comunicación de masas constituye un modo de bloqueo muy efectivo para las quejas de los nacionalistas. La violencia del estado-nación se puede tapar mientras que el uso de la violencia por algunos nacionalistas se tacha de “terrorismo” y “extremismo”, avocando así la imagen de la “Leyenda Negra”» (Tiryakian, 1989: 158-159).

zaionak, hitzak hitz, asimilazioaren edukitik asko du. Inmigratuei beren jatorrizko kulturari eusteko eskubidea dagokiela eta horretarako estatu hartzaileek haientzat *curriculum* bereziak prestatuko dizkiela aitortzen den aldi berean, bertako kulturen eta hizkuntzan integratzea eskatzen zaie. Horregatik, Europar Batasunak sustatzen duen inmigrazio-politikaren atzean “arrazismo birtuala” ezkututzen da, bere hipokresia agerian geratzen da, xenofobia-adierazpen oro esplizituki kondenatzen den aldi berean, inmigratuak komunitate hartzailean onartuak eta bertakotuak izan daitezten neurri murriztaile guztiak hartzen baitira. Ezkutuko joera —eta zenbait kasutan agerikoa ere bai— inmigratuak kanpora uxatzea da. Zergatik? Estatu-nazioen gizarte-kohesioa arriskuan jartzen omen dutelako. Horrela, Mendebaldeko estatu demokratikoentzat, mehatxu bihurtu dira inmigratuak, haientzat desintegrazio soziokulturala omen dakartelako (Jordan eta Ortega, 2002: 102). Hala dira, adibidez, Espainian 1994an zeuden 500.000 inmigratu haiek (Nieto eta Santos, 1997: 64).

Euskal Herriko inmigrazioaz zer esan dezakegu? Lehen, Sabino Aranz gerotik, “maketoak” ziren, beren kultura arrotza gurean ezartzera zetozenak eta, horregatik, kanpoan utzi beharrekoak; geroago, inmigratuak Euskal Herri Langilean barneratuak izan ziren, kanpokoa eta bertakoa aleazio berean urtuz; gaur egun, interkulturalismo neoliberalaren diskurtsoa geureganatuz gero, integrazioaren errezeta saltzen ari gara, baina edozein prezioetan. Baldin estatu-nazio boteretsuek, beren kultura nazionallean desintegrazioaren hazirik erein ez dezaten, neurri murriztaileak hartzen badituzte eta baldin pedagogoen komunitate akademikoak, halakorik gerta ez dadin, estatu-nazioek *ethos* uniformatzailearen defentsan hartutako jokabideak onartzen badituzte, zertan ari gara gu, geure kultura eta hizkuntza aurrera ateratzeko tresna politiko egokirik ez dugunok, Europa demokratikoak “gutxiengo etnikoen” *gheto*-an sartuta gauzkanok? Inmigratuak euskal munduan integratzen, ala geure buruak asimilazioaren zuloan barneratzen? Galdera honi erantzun behar diogu. Inmigratuak estatu hartzailean, goiz edo berandu, bertako hizkuntza ikasten dute, eta bertan integratzen dira. Halaber, noski. Espainiako inmigratua, aldiz, bere etxean sentitu da Euskal Herrian; orain kanpotik —batez ere, Hego Amerikatik— datorrenak, berriz, hizkuntza berekoa izanda, ez bide du behar berezirik sentituko euskaraz ikasteko. Horregatik, jakin beharko da egiazki zertaz ari garen hizketan, asimilazioaz ala integrazioaz, ez teoria-mailan, gertatzez baizik. Eta honako hau jakin, inmigratu horien gizarte-nortasuna nolakoa den, alegia, eginak izan diren datu estatistikoak begiratuta jakiten da. Eta, egia esan, datu kezkarria da gaur egun ikasle etorkinen % 65 A ereduan dabilela egiaztatzea².

Beste neurri bateko arazoa bada ere, galdetzekoa da, baita ere, nolakoa den euskal diasporakoen gizarte-nortasuna, are gehiago, komunitate hori osatzen dutenen kopurua bost milioitik gorakoa denean, diotenez, komunitate diasporikoetan bigarren handiena. Horien nortasuna beren lurraldean bizi direnen bezain *egiazkoa* eta *euskalduna* dela dioenik ere bada, geografia, hizkuntza eta pentsakera desberdinekin harremanean bizi diren aldetik, transkulturalagoa, irekiagoa izango litzatekeena eta, ondorioz, identitate esentzializatueta errotuak daudenen aldean,

2. Gara, 2003-10-26, 4.

jakina, aberatsagoa. Hala uste du Joseba Zulaikak (1996, 195-198). Lurralde-tasunak, gure ustez, ukitu berezia ematen dio lekuko komunitatean bertan bizi denari. Nik ere baditut senideak Hego Amerikan eta berrikitan etorriak bigarren eta hirugarren belaunaldikoak beren erroen bila. Sentitzen dute beren aitona-amonen lurra, baina haien erreferentzia kultural eta politikoak lurralde eta estatu jakin batekoak dira, Argentinakoak edo beste nonbaitekoak. Besterik litzateke erbesteratuen kasua, horien euskal nortasunak, beren lurraldetik harago ere, beren sorterriari atxikirik segitzen baitu. Euskal identitatearen barruan, bada, bertakoena eta kanpora joandakoena bereizi beharra dagoelakoan nago. Lurralderik gabeko nazio-erreferentziari gorputza falta zaio.

2. Gizarteratzea ulertzeko moduak daude kultura-nortasuna lortzeko bidean. Galdera honako hau da: nola azaltzen edo interpretatzen dira gizarte-identitateak?

2.1. Gizarteratzea, hasteko, elkarren arteko harremanen emaitza gisa uler daiteke, *interakzio* gisa, alegia. Teoria honetan kokatzen dira, Mead-en (1982) pertsonalitatea, Blumer-en (1982) interakzionalismo sinbolikoa Garfinkel-en (1967) etnometodologia, etab. Horiek denak batera dutena da, gizarte-errealitatea eraiki, pertsonen arteko harremanen bidez eraikitzen dela, uneoro eraikiz doana dela. Azken batean, subjektibotasunean oinarritzen da, eta, hor, lehentasuna indibidual-tasunari ematen zaio. Ikuspegi horren oinarrian Weber (1964) zaharra aurkitzen da, pentsalari neoliberaletan oso modan jarri duten autorea, eta Chicagoko Unibertsitatean garatzen den Psikologia Soziala. Eskola horretako kide izandako Mead andere antropologoak dakarrenez, berak “beste nabariak” (gaztelaniaz “otros significativos”) deitzen dien itzal handiko pertsonen iritziek eta jokabideek berebiziko eragina omen dute beren jarraitzaileen artean, haien esanak eta eginak estimu handitan hartzen dituztelako. Leku gehienetan izaten dira horrelako idolo sakralizatuetak, zerbaitetan nabarmendu direlako —artearen, literaturan, edo kirolean, berdin zientzietan, edo politikan, kolpetik, sakramentuetan *ex operato operantis* bezala, orojakitun bihurtzen direnak, zernahitaz hitz egiten dutenak, eta zenbait kasutan beren nortasuna tokian tokiko botere-interesen zerbitzura jarrita daukatenak. Gurean ere izango dira, beharbada, horrelakoak. Eta jendeak —masak— horiek dauzka, nortasun berezikotzat hartzen dituen heinean, gidaritzat.

Subjektuen arteko harremanetan oinarritutako ikuspegi honetan, gizarte-errealitatea interakzio-sarean gertatzeak dakarren ondorioa besterik ez da, unean-unean eraikiz gatozena bakarrik da errealitate objektiboa. “Gu” eta “besteek” arteko erlazioan sortzen da esanahien eta sinboloen multzoa, eta horien ondorioz eraikitzen dira autoadskripzioak. Inkesta psikosozialetan zer erakutsi gaur, hura da euskal nortasuna; zenbait hizkuntza erabili eta zein proportziotan, hura da euskal kultura. Ikuspegi horren arabera, erdarak, gurean, euskal kulturaren sartzekoak liriteke, aspaldidanik geuretuak baititugu. Azken batean, zerbait situazionala da, testuinguru bati lotua, mugen kontua. Pentsaera honetakoen ustez, zehazki Gerd Baumann-en iritziz (2001, 79-80), nortasun etnikoa zertzen duen etnizitatea ez da talde etniko baten kalitate edo propietate bat, lehenik eta bereziki, erlazio bat baizik. Nortasun-mota oro kultura-eraikuntza den aldetik (elkarrekintzen sarean sortzen dena, alegia, etniaren edo nazioaren kategoria, adibidez), ezin da substantiatu, edo inbokatu, izaera objektiboa duen esentzia bat balitz bezala. Hala uste dute nortasun etnikoaz irakurketa instrumentalista eta prozesuala egiten du-

tenek³. Laburki esanda: teoria horren argitan, gaur egungo Euskal Herria izan, anitza da kulturaz, anitza hizkuntzaz, anitza nazioaz, anitza giza konposizioaz, eta gizarte-nortasunaz jardutean; hala dakar Joseba Arregik (1996), multierferentzialitate hau kontuan hartu beharrekoa da, hiritarren borondatea bortxatu nahi ez bada bederen.

Garai batean, ideologia liberala eta marxista, biak izan ziren etnizitate eta nazionalitate kontzeptuen balio zientifikoa ukatu zutenak, uste baitzuten modernitateak irentsiko zituela. Haientzat mugimendu nazionalistak erreakzionarioak ziren, burgesak, historiaren trena galdu zutenak. Gizarte-ebidentziak ezin baitira ukatu, onartu beharrean aurkitzen dira estatu-nazioek zokoratu zituzten “gutxiengo etnikoak”, nahiz eta horien likidaziorako asimilazio-politika zuhurrak jarri, ez direla desagertu. Antza, “zuku-makina sozialak” ez bide du behar bezala funtzionatu (Calvo *et al.*: 1993: 73; Ytartek, 1999: 19), eta porrot horren ondorioz sortu omen dira gaur egun hainbeste entzuten diren kultura-aniztasunaren, erlatibismoaren eta antzeko kontzeptuen aldeko predikuak, estatu-nazioen gizarte-koheresioa zartzeko arriskuan jartzen omen dutenak. Beraz, esango da, kontzeptu horiek onartu ezinik ez dago. Onartu ezin dena nazionalistek horietaz egiten duten irakurketa esentzialista da, edo primordialista⁴, ikuspegi honek kulturari izaera naturala ematen omen diolako.

Esan, esaten da teoria primordialista eta instrumentalista, tipologia gisa, elkarren osagarriak direla. Irakurketa horren atzean, urrutian Weber, eta gertuago Smith eta Barth daude, hirurak estatu-nazioaren aldekoak, horri atxikitzen baitizkiote arrazionaltasuna eta modernitatea. Guretzat ere, inolako zalantzarik gabe, bestetasuna, Koldo Mitxelenak zioen bezala⁵, barrura begira berdina eta kanpora begira desberdina izate hori, edo horrela sentitze hori, erlazio batean agertzen da, komunitate etniko edo nazionala etengabeko interakzioan dagoen populazioa da; eta, zentzu horretan, Nielssonekin batera esan dezakegu⁶, herritarrek beren elementu bereizle batzuk modu subjektibo batez aldarrikatzen dituztela, hain zuzen ere, garaian garaiko egoera soziohistorikoen arabera.

Bego hori. Baina ezin da ahaztu, Bourdieuk (1978) gogorarazten duen bezala, kultura-sustrai batean oinarritzen dela, gizanabakoaren portaera baldintzatzen duena. Erlazio hutsa baino harago, eta lehenago, herri bakoitzean errotua den zerbait da. Euskal Herrian kultura-elementu horiek ez dira *ex nihilo* asmatuak, herri batek bere lurraldean, historian zehar, bizi izandako emaitza baizik. Kroeber antropologoak ere, kulturaren definizioa ematerakoan, oinarritzko elementuen artean,

3. «A la inversa, para el instrumentalista la etnicidad es un ejercicio en mantener fronteras que requiere una praxis; la identidad étnica y las fronteras de los grupos pueden ser defendidas, penetradas o ignoradas según las exigencias de cada situación» (Douglass, 1989: 99-104).

4. «Para el primordialista la etnicidad es un estado cultural dado y “cuasi-natural” determinado por la ascendencia de cada uno, y con determinantes socio-biológicos para los más radicales» (*op. cit.*, 95; 99-104).

5. «Gogoan eduki hizkuntza barrenera begira lokarri dela, eta kanpora begira berezgarri. Bestalde, hizkuntza arduraz zaindu behar den altxorrik handiena bezala har daiteke, edota hesi bezala ere bai» (Mitxelena, 72: 153).

6. «Un grupo étnico es una población en continua interacción basada en atributos de etnicidad invocados subjetivamente. Por eso, determinadas manifestaciones de etnicidad por parte de un grupo étnico son subjetivas, contextuales y situacionales» (Nielsson, 89: 204).

esaten zuen kulturaren gunea tradizioz jasotako ideiek osatzen zutela, historian zehar sortu eta hautatuak izan diren haiek, aldaketa guztien gainera eta azpitik dirautenek. J. I. Ruiz Olabuenagak (1989, 133) ere, Euskal Herriari dagokionez, euskal etniaren iraunkortasuna defendatzen du, esatean, historiari harago, historiaurrean dituela bere sustraiak. Euskal Herriak bere lurraldea baduela, bere hizkuntza, bere antolakuntza politikoa, bere ezaugarri biologikoak, elementu horiek guztiak datu objektiboak dira, historian zehar erreproduzitzen etorri diren zerbait.

Mahatsik gabe ardorik ez den bezala, ez eta arrautzarik oilorik gabe, identitate soziala edo nazionala, orobat, sustrai historikoa duen komunitate jakin baten barruan bakarrik eraikitzen da. Errekako uren etengabeko jarioaz baliatuko naiz identitate sozialaren nolakoa irudikatzeko. Puntu jakin batean jarri eta, errekan behera ziztu bizian datozen urak sekula ez dira berdinak, geldialdirik gabe doazenak dira, gure eguneroko harremanen antzera, baina doazen ur haiek beti izango dira ubide berean doazen urak, urak diot, ez petrolio edo beste likidoren bat, nahiz eta bidean, itsasora baino lehen, lohituko diren, nahasiko diren, zikinduko diren. Ez noa hemen euskal identitatearen ekologiaren —ur garbiez, euskaldun jatorrez— deus esatera.

2.2. Gizarteratzea, interakzio gisa ez ezik, *gizarte-egituratze* gisa ere ulertu behar da. Maila hori da, hain zuzen, gehien ahazten dena, marxismoak eta estrukturalismoak behera egin duten une historiko honetan. Subjektibitatearen mundua egiazkoa bada, objektibotasunarena ere hori bezain egiazkoa da. Egia da, Weberrek esan bezala, maila mikroan, gizarte-ekintza subjektu bat baino gehiagoren artean sortzen den esanahian eraikitzen dela. Maila makroan, ordea, Emile Durkheimek (1897, 36) gizarte-ekintzaz emandako definizioak gizarte-errealitatearen alderdi objektiboak agerian jartzen du, dioenean gizarte-egitateak aritzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduak direla, gizabanakoari kanpokoak zaizkionak eta bortxaz ezarriak izateko indarra dutenak. Honekin esan nahi duguna da gizarte-egiturak ere badirela, ekonomikoak nahiz politikoak nahiz kulturalak, eta faktore horiek erakundetuak aurkitzen diren aldetik, izaera objektiboak dutela eta, hain zuzen ere, pertsonen arteko harremanak gizarte-egitura horien barruan mamitzen direla.

Boterearen izaera subjektu-arteartekotasunean datzala esaten da, pertsonen arteko harreman-sarean gauzatzen den erlazioan, alegia. Mikroboterea maila horretan ere presente dagoela, zalantzarik ez da, Barry Barnes-ek (1990) aztertzen duen bezala. Makroboterea, ordea, gizarte-egituretan islatzen da, modurik agerikoena estatu-boterea izaki, Weberrek ongi aztertzen duena. Guri hori interesatzen zaigu gehienbat, estatu-nazioen eta estaturik gabeko nazioen arteko gatazkak, klase-artekoak, hizkuntzartekoak, generoen artekoak etab., emanak datozkigun gizarte-egitura horien baitan gauzatzen baitira, errealitate materialean, gure borondateatik at. Baina gizabanakoak dira, subjektu historikoak diren aldetik, gizarte-egitura horien produkzioan bezala erreproduzioan parte hartzen dutenak. Gure tesia da, gizarteko harremanak, izan, gatazkatuak direla, eta hala direla, gizarteko harremanetan interes kontrajarririk aurkitzen direlako eta, modu batera edo bestera jokatzeko orduan, talde desberdinen motibazioak desberdinak izaten direlako. Boterea zeinek izan, hark kontrolatzen ditu gizarte-harreman horiek. Boterea duenak bere legea inposatzen du beste guztien gainera, hari kontra egin ala ez.

Botereak obedientzia eskatzen du. Horregatik, hizkuntza —euskara— guztioi dagokigun zerbait dela eta, ezin dela politizatu esaten denean, behin eta berriz esan ere, zerbait irreala predikatzen ari gara. Hizkuntza-politikaz mintzatzen garenean, intelektualen etikan ez da haizu soineko literarioz edo poetikoz jantzitako edozein diskurtso egitea, akademikoa baizik, kasu honetan Soziolinguistika edo Hizkuntzaren Soziologiako iturrietan oinarritzen dena.

2.3. Lehen esan da ez liberalek ez eta marxistek ulertu zutela nazio-arazoa. Hezkuntzaren Soziologian, orobat, Bourdieuk edo Bernesteinek ere hizkuntzaren arazoa klasearen kontzeptuari lotuta aztertzen dute. Gure ustez, hizkuntzak badu klasearekiko bere autonomia, bere espezifikotasuna. Hizkuntzen arteko gatazkak, ez klase-mailan bakarrik, nazio-mailan ere gauzatzen dira, estatu-nazioen hizkuntzek bestea menpean hartuta daukatenean, gure kasuan auzo-erderek euskara bezala. Mendekotasunaren sarean bilbatutako gizarte-harremanak oro, gertatzez halakoak direla eta, onartzekoak ote dira? Hori argitzeak badu bere garrantzia, zeren gero eta anitzagoa den komunitate nazional batean, areago gurea bezalakoan, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen diren honetan, hizkuntzen arteko harremanak ez baitira batere orekatuak. Galdetu beharrekoa da zer den euskal kultura, frantsesa eta gaztelania euskara bezainbat euskal kultura diren, eta hala badira, zer zentzu duen euskalduntzen edo berreuskalduntzen jarduteak. Edo alderantziz, euskal kulturaren muina euskara da. Planteamendu honen argitan azertu beharrekoak ditugu kultura-aniztasunaren eta elebitasunaren inguruko arazoak.

Dena den, nire ikuspuntua honetaz zein den azalduko dut. Iruditzen zait, bat, euskal kultura zer den nazio menderatuetan bakarrik galdetzen dela, ez frantsesek ez espainolek ez baitute zalantzarik beren kultura nazionala zein den; bi, hizkuntza elebidunaren kontu hauek guztiak nazio menderatuetan bakarrik gertatzen direla, estatu-nazioak izan, berdin bertako hiritarrak, elebakarrak baitira gehien-gehienak. Elebitasuna eman, maila pertsonalean bakarrik ematen da, eta normalean elite bat besterik ez da hizkuntza bat baino gehiago mintzatzeko gai dena, eta eleaniztun horrek ere, aldi berean, bere eguneroko harremanetan hizkuntza bat bakarrik erabiltzen du. Menderatuen diskurtsoa, irakurketa interakzionalistaren ondorioz, geurten hasiak gaudelakoan nago, defentsan jarrita gaude, ogi-apurren zain mahaipean dagoen zakurraren antzera.

Bestalde, estatu-nazioak bere hizkuntza nazionala ezartzen du beharrezkotzat bere lurralde osoan, eta, bere baitako beste komunitate autonomikoetako hizkuntzak ere ofizialtzat onartzen baditu ere, Espainiako kasuan bezala, ez dira lurralde horietan beharrezkoak, horietan, lurralde-irizpidearen ordeztan, pertsona-irizpidea aplikatzen baita, eta zein hizkuntza jakin eta erabili norberaren esku uzten da.

Azken batean, identitate sozialaren inguruan harrotutako arazoari dagokionez, ondoko puntu hauek nabarmenduko nituzke: a) hizkuntzen arteko gatazka egiazkoa dela, euskal gizarteko maila mikroan bezala makroan emanez datorren fenomeno bat dela, euskal nortasunaren nolakoa baldintzatzen duena, eta, funtsean, barru-barrutik politizatu dagoela, ezin baita hala ez egon; b) elebitasunaren kontua, Espainian, komunitate autonomoen kontua dela, ez estatu-botereari, baizik botere autonomikoari dagokiona, alegia; c) euskara politizatzeari dagokionez,

lehen erantzuleak klase politikoan sartuta daudenak direla, horiek baitira hizkuntza-politika markatzen dutenak eta, maila horretan, ez da ikusten Euskal Herri historikoa berreuskalduntzeko inongo plangintzarik, ezta urrutiko helburu gisa hautemateko asmorik ere; d) nahiz eta gartsuki defendatzen duten —eta arrazoiz— beren buruak ez-nazionalistatzat dauzkaten euskaltzale batzuek euskararen alde jokatzeko ez dela abertzale izan behar (Saizarbitoria, 2003), eta, maila horretan bereizi beharrekoak direla euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna, euskararen historian egin izan den bezala, esan behar da, halere, hizkuntzaren aurrean, euskarari dagokionez, ez dela jarrera bera ematen bertakoen eta kanpotik etorritakoen artean, ezta alderdi nazionalisten eta estatalisten artean, eginak diren datu soziolinguistikoek egiaztatzen duten bezala (Aizpurua, 1993); d) era berean, familia nazionalistaren barruan, ia guztiek arrazoi pragmatikoen harira jokatzen duten arren, iruditzen zait, maila estrategikoan, autonomistek eta independentistek ez dutela hizkuntza-plangintza bera aldarrikatzen.

Klase politikoak ez dauka bereganatua euskararen berreskurapena, ez, berderen, klase politiko instituzionalizatuak. Borondate politikoaren kontua da, oinarri-oinarrian, belaunaldi berriak euskaratu ezinik ez baitago, baldin horretarako helburuak finkatu eta bitartekoak jartzen badira. Baina, hemen, berriro ere, boterearekin egiten dugu topo. Beraz, alderdi edo sektore jakin batek euskararena politizatu egiten duela esaten denean, gezur galanta esaten da, hipokresiaren hoditik maltzurkeriaz ateratzen dena, salakuntza hori egiten duena baita euskararen erabilera monopolizaturik daukana.

3. Gizarteratzeak, *euskal nortasun* gisa, euskara eta euskal kultura oinarritzat hartzea inplikatzeko du. Hori da euskal kulturgintzak daukan erronka nagusia. Hemenik doa, gizarte-proiektzio gisa, jakina, euskal nortasunari buruzko eraikuntzaren arkitektura.

Euskal gizartea gizarte plurala da, beste gizarte moderno guztiak bezala, eta bertako jendeak, nortasun nazionalari buruz, bere autoadskripzioak egiten ditu: nor euskalduna sentitzen da, nor espainola, nor frantsesa, edo nor frantses euskalduna, nor espainol euskalduna eta abar.

Baina euskal gizarte konplexu hau Euskal Herri gisa hautematen dugunean, eta nazio-proiektu gisa Herri horrekiko kultura-nortasuna (nazionala) zertzen hasten garenean, orduan euskalduntasunarekin aurkitzen gara aurrez-aurre eta kontzeptu hori mugatzen duten elementuak bilatzeari ekiten diogu. Adostasun handia izaten da esatean —zaila baita ukatzea—, euskal hizkuntza —euskara— eta euskal lurraldea —lurralde historikoen esparrua bere osotasunean— direla euskal nortasuna gehien zertzen dutenak. Guk hemen, oinarritzat, nortasun etnikoa hartzen dugu, mundu horretan integratua dagoena, alegia.

Baina gutxienezko onarpen hori bukatzen den leku berean hasten dira sortzen nahasketak eta eztabaidak: nolakoak dira euskararen eta euskal kulturaren arteko harremanak, nolakoak, halaber, frantses edo espainol hutsak eta euskaldun hutsak sentitzen direnen arteko harremanak?

Lehen galderari buruzkoan adostasuna ez da erabatekoa, nahiz desberdintasunen edukia ñabarduretara mugatzen den. Koldo Mitxelenak, adibidez, euskara

dauka euskal kulturaren «azkeneko erro eta oinarri» gisa⁷. Larresoro (1972) areago doa oraindik, baieztatzen duenean hizkuntza dela «pentsabidearen eustarri eta gidari»⁸. Eta hori fomulatzean, Humboldtten tradizioaz geroztik datorren tesia beretu besterik ez du egiten, harenari Sapir-en eta Whorf-en hipotesiak erantsiz. *Euzko-Gogoa*-k (Iztueta, 2001: 81-96), zuzendaritzatik, «euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk» eta, orobat, «euskararik gabeko euskal kultura ez dela benetakoa» esaten zuen, baina kantu hura heriotzak isilarazi zuen erbesteran.

Gu gaurkoak kezkatzen baikaitu, zertan gara? Hizkuntza-politika erakundetuari dagokionez, ageri da, Gasteizko politikan —zer esanik ez Nafarroakoan— irizpide pragmatistak nagusitzen direla, eta hori frogatzeko, hona hemen bi arrazoi: lehenengoa da arazo kulturalak indar-koerlazioaren arabera erabakitzen direla, mendekotasun-egoeran, alegia, hezkuntza elebidunaren kasuan bezala, bistakoa denez, irakaskuntza-sistema euskalduntzeko sobera baitago gaur egun indarrean dagoen eredu sistema osoa; eta bigarrena, euskal kultura sustatzeko orduan, kontsumoaren irizpideari jarraitzen zaiola: euskara gizartean zenbat erabiltzen den hainbeste, jendeak telebistan zer ikusi nahi duen huraxe, eskaintzen dena zaborra bada ere. Baina jokabide itsu horrek ez garamatza inora, ez bada gure heriotzara. Horregatik, kontsumismoaren sarean erori gabe, egoera hori gainditzeko beste irizpide batzuk erabiltzea proposatzen dut, giza azturak eta gizarte-egiturak aztertzea, alegia. Bourdieu zendu berriarekin batera galdetu beharko genuke: bat, ea jendeak zergatik daukan kultura-aztura horiek eta ez beste batzuk, adibidez, euskaldunek zergatik daukaten erdaraz mintzatzeko joera; eta, bi, Marx (1976) berpiztu eta, gizarte-egitura zapaltzaile horiek nola alda daitezkeen, edo bederen, hobetu.

Bigarren galderari erantzutea zailagoa da. Gainera, horrek dakartza gatazka gehien, identitate bikoitza dutela diotenen erdian lehertzen baita euskal nazionalisten eta estatu-nazionalisten arteko kinka politikoa, jakina, tartean estatu-boterea dela. Norberaren adkripzioaz egiten diren azterketa psikosozialetan erabiltzen diren irizpideak ez baitira uniformeak izaten, gertatzen da nortasun bikoitzekoak ere agertzen direla. Berriki egin diren ikerketa konparatiboen arabera, Jokin Apalategik (2001) erakusten du 6-14 urte bitarteko euskal haurrek ere, Glasgow eta Lovainakoek bezala, Europako beste haurren aldean identitate-arazo konplexuagoa erakusten dutela, haien erreferentzia bakarra estatu-nazioarena den bitartean, hauek biren aurrean aurkitzen baitira, batetik estatu-nazioarena daukatela eta, bestetik, Euskal Herriarena.

Azken batean, elebitasunaren arazoa herri menderatuen kontua den bezala, identitate bikoitzari buruzkoa ere halaxe da. Estatu-hiritarrek ez dute horrelako

7. «Gauza bat da, beraz, hizkuntzak herriaren pentsamolde, izaera eta gainerakoak noraino mugatzen dituen erabakitzea, eta bestea, arras bestea gero, hizkuntzak herri batekin, herria gizarte eta gizatalde den aldetik duen zerikusia. Urrutira joan gabe, egungo egunean Euskal herriaz mintzatzen baldin bagara, Euskal herria deritzan zerbait baldin bada oraindik munduan, mendez mende gorde dugun hizkuntzari zor zaio. Ez da, esan beharrik ere ez, hizkuntza bakarrik izan; bai, ordea, beste arrazoi askoren azkeneko erro eta oinarri» (*Op. cit.*, 156).

8. «Hizkuntza agertuz gero, pentsabidearen eustarri eta gidari bihurtzen dela oso azkar, eta hori dela-ta, oso sakonki markatzen eta baldintzen dituela hizkuntza horretaz baliatzen direnak (eta baliatzen den herria, beraz). Eta hauxe da gure tesia» (Larresoro, 1972: 9-10).

arazorik. Aski dute elebarkar izatearekin, aski identitate bakarrekin. Estatuak krisian omen daude. Agian ez dira lehen bezain subiranoak izango, transnazionalizazioak bere bidea egin duelako, eta egiten ari delako. Baina Euskal Herriak jai du bere nazio-proiektua bideratu eta gauzatzeko botere-estatu, edo antzekoa, lortzeko indarrak batzen ez baditu. Orduan bai ez dela guk nahiko genukeen trenea hartzeko geltokirik izango.

3. Gizarteratzea, *pedagogia-askapen* gisa ere har daiteke, Henry A. Giroux-ek planteatzen duen zentzuan, alfabetatzea praktika askatzaile moduan hartuta⁹, alegia, eta, horrela ulertzean, pedagogia etikoaren aldarrikapena egiten dugu.

Hezkuntzaren egitekoa ez da bakarrik ezagutzen transmisioa egitera mugatzen, normalean gertatzen den bezala, ikasleak lan-mundurako prestatzen baitira. Hori bezain garrantzitsua da —agian, garrantzitsuagoa—, hiritarrak heztea, hau da, beren iritzi eta jokabideetan kritikoak izaten ikasiko dutenak, egiazko balioak barneratuko dituztenak, etikoak izaten ikasiko dutenak aintzakotzat hartzea. Pedagogiarenean etika aipatzean, hain zuzen, bi maila bereiziko nituzke: ez bakarrik etika soziala, baita pertsonala ere. Horretarako prestakuntza, zuzentasunean oinarritua, hezkuntza formalak eman behar du.

3.1. Etika *personalizatua* da gehienbat lantzen dena pedagogian. Esparru horretan kokatzen da balioen lanketa. Interkulturalismoaz jardutean, balio batzuk bakarrik aipatzen dira: tolerantzia, solidaritatea, bakea, parte-hartzea, eta horrelakoak, bestearen onarpenarekin zerikusia dutenak. Euskal gatazkaren gordina dela eta, bakearen aldeko ekinaldiak egin izan dira euskal irakaskuntzan, Ikastolatan eta. Ederki dago bakearen kultura aldarrikatzea, uso zuriari hegan egiten uztea, baina balio guztietan balioetsuena ez ezik funtsezkoena, justizia da, euskal lege zaharrearantz datorren bezala, bakoitzari berea ematea, gehiengoaren indar legeztatuak gutxiengoaren arrazoia hankapean ez edukitzea, adostasuna egiturazko zapalkuntzaren gainean ez oinarritzea, baztertuekin, edo menderatuekin trafikatzeko jardun orde, horien lerroan kokatu eta horien alde jokatzeko, eta abar luzea. Menderatuen aldetik ere, beren askapen amestua —utopia egingarria— lortzeko bideari ekiten diotenean, balioen mundua praktikara eramaten jakin behar dute, beren iraultza sinesgarria izan dadin. Iraultza orok du bere kode etiko zibikoa.

3.2. Baina etikak, maila indibidualaz gain, badu beste maila bat ere, *etika soziala* deitzen zaiona, hura bezain edo, agian, garrantzitsuagoa dena, hau gizarteko egituretan eta harremanetan eragin zuzena duten ideologiez ari baita. Zentzu horretan hitz egiten da, adibidez, sozialismoaren kapitalismoarekiko nagusitasun etikoaz, hark klase zapalduari askatasuna agintzen dion neurrian, feminismoa patriarkalismoari, edo ekologismoa kutsadurari kontrajartzen zaion neurrian.

Baina aldarrikapen ideologikoak, erlijioan bezala politikan, eduki etikoz jantzi behar dira, eta, maila horretan, sarritan gertatzen da gizarte-ustelkeria, maila

9. «Si la política de la diferencia debe constituir una práctica emancipadora más que una práctica opresora, entonces la alfabetización deberá reescribirse en términos que articulen la diferencia con los principios de igualdad, justicia y libertad, en lugar de hacerlo con aquellos intereses que respaldan las jerarquías, la opresión y la explotación» (Giroux, 1992: 15).

indibidualean bezala maila kolektiboan, eta hemen, eskuinean bezala erdian eta ezkerrean, mugimendu iraultzaile izenekoetan. Horregatik, askatasuna ez da askatasuna izango zuzentasunaren bidetik ez badabil, bakea ez da bakea izango legearen bortxaz, edo bortxaren ondorioz, ezarria bada. Soziologian, Durkheimen geroztik, oinarritzko kontzeptua da gizarte-adostasunarena, berak ahalbidetzen baitu gero eta konplexuago eta anitzagoa den gizarte aldi berean globalizatu eta lokalizatu batean heterogeneotasuna eta homogeneotasuna elkartzea. Baina, arestian esan bezala, bere erroak zuzentasunean ez dituen gizarte-adostasunak ez bide du bake giro luzerik ezagutuko. Maila horretan, berriro, pedagogia-etika boterearekin aurkitzen da aurrez-aurre eta praxi sozialari dagokion eremu hone-tan, jakina, gaur egun nagusitzen den ikuspegi eta jokabide pragmatista zauri la-riari irekiz dator gizarte-bizitzaren osasunean. Estalki eta adabaki merkeen aroan bizi gara, azken arrazoitzat gizarteak hala funtzionatzen omen duela argudiatuz. Balio ote du arrazoibide horrek?

Bibliografia

- Aizpurua, X. (1993): "Euskal Herriko biztanleen hizkuntza gaitasuna", *Jakin* 77-78, Donostia, 91-96.
- Apalategi, J. (2001): *La idea de nación en los niños vascos*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Arregi, J. (1996): *Euskadi invertebrada*, Oria, Donostia.
- Azcona, J. (1984): *Etnia y nacionalismo vasco. Una aproximación desde la antropología*, Anthropos, Bartzelona.
- Azcona, J. (1989): "Definición de etnicidad", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 259-262.
- Barandiaran, J. M. (1977): "Constantes en la cultura vasca", *Cultura vasca*, I, Itxaropena, Zarautz, 7-15.
- Barnes, B. (1990): *La naturaleza del poder*, Ediciones Pomares-Corredor, Bartzelona.
- Barth, F. (1976): *Los grupos étnicos y sus fronteras. La organización social de las diferencias culturales*, FCE, Mexiko.
- Baumann, G. (2001): *El enigma multicultural*, Paidós, Bartzelona.
- Berger, P. eta Luckman, TH. (1986): *La construcción social de la realidad*, Amorroutu, Buenos Aires.
- Blumer, H. (1982): *El interaccionismo simbólico: Perspectiva y método*, Hora, Bartzelona.
- Bourdieu, P. (1978): "Reproducción cultural y reproducción social", in MEC: *Política, igualdad social y educación. Textos seleccionados de Sociología de la Educación*, Madril, 257-297.
- Bromley, Y.V. (1989): "Procesos étnicos contemporáneos en la URSS", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 163-176.
- Calvo, T.; Fernández, R. eta Rosón, G., (1993): *Educación para la tolerancia*, Editorial Popular-JCI, Madril.
- Connor, W. (1989): "Democracia, etnocracia, y el estado multinacional moderno: paradojas y tensiones", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 111-130.
- Douglass, W. (1989): "Crítica de las últimas tendencias en el análisis del nacionalismo", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 95-110.
- Durkheim, Emile (1897): *Las reglas del método sociológico*, Akal, Bartzelona.
- Garfinkel, H. (1967): *Studies in Ethnomethodology*, Prentice Hall, Englewood Cliffs.

- Giroux, H. A. (1992): "La enseñanza, la alfabetización y la política de la diferencia", in H. A. Giroux eta R. Flecha (arg.): *Igualdad educativa y diferencia cultural*, El Roure, 11-25.
- Gurrutxaga, A. (1989): "La persistencia del conflicto nacional", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 231-237.
- Hernández, F. (1989): "Del Estado-Nación al estado de las autonomías, una interpretación proyectiva para España", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 283-294.
- Iztueta, P. (2001): *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Jordan Sierra, J. A. eta Ortega Ruiz, P. (2002): "Educación intercultural y sociedad plural", *Teoría de la Educación* **14**, 2002, 93-119.
- Martínez Montoya, J. (1999): *La construcción nacional de Euskal Herria. Etnicidad, política y religión*, Tarttalo, Donostia.
- Marx, K. (1976): *Contribución a la crítica de la economía política*, Alberto Corazón, Madril.
- Mead, G. H. (1982): *Espíritu, persona y sociedad*, Paidós, Bartzelona.
- Minondo, Agustín (1989): "La nación. Razón y hábito", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 239-245.
- Miranda, B. (1989): "Identidad colectiva y reproducción simbólica", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 247-251.
- Mitxelena, K. (1972): *Zenbait hitzaldi*, Etor, Donostia.
- Nagel, J. (1989): "La persistencia de la etnicidad. Aspectos nacionales e internacionales de los movimientos étnicos modernos", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 77-93.
- Nielsson, G. P. (1989): "Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 193-225.
- Nieto, S. eta Santos Rego, M. A. (1997): "Formación multicultural del profesorado: Perspectivas en los Estados Unidos y en España", *Teoría de la Educación* **9**, 55-74.
- Pérez-Agote, A. (1989): "Hacia una concepción sociológica de la nación", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 177-192.
- , (arg.) (1989): *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Poutignat, PH. eta Streiff-Fenart, J. (1995): *Théorie de l'ethnicité. Suivi de Les groupes ethniques et leurs frontières de F. Barht*, PUF, Paris.
- Ruiz Delgado, B. (1999): "Racismo, ciencia y educación intercultural", *Pedagogía Social* **4**, abendua, 27-41.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (1989): "Reproducción étnica en el País Vasco: dinámica y proceso", in Pérez-Agote (ed.), op. cit., 131-139.
- Saizarbitoria, R. (2003): "Liburuak", *Hermes*, **9**, ekaina, 112-116.
- Smith, Anthony D. (1984): "Ethnic Myths and Ethnic Revival", *Archives Européennes de Sociologie*, **24/3**, 283-303.
- Tejerina, B. (1989): "Aspectos teóricos para el análisis del conflicto lingüístico. El caso vasco", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 337-343.
- Tiryakian, E. A. (1989): "Nacionalismo, modernidad y sociología", in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 143-161 orr.
- Tylor, E. B. (1871): *Primitive Culture*; gaztelaniaz (1977-1981), *Cultura primitiva, I-II*, Ayuso, Madril.
- Weber, M. (1964): *Economía y sociedad*, FCE, Mexiko.
- Ytarte, R. M. (1999): "Educación multicultural y derecho a la diferencia. ¿Una propuesta ambigua?", *Pedagogía Social*, **4**, abendua, 17-26.
- Zulaika, J. (1996): *Del Cromañón al Carnaval*, Erein, Donostia.